

hondo-hondotik

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi

(EHUko irakaslea)

W.v. Humboldt eta Euskal Nazioa

1. Duela orain 200 urte egon zen Humboldt (1767-1835) bigarren aldiz Euskal Herrian. Bizitza guztian zehar erakutsi zuen berak herri ezberdinak ezagutzeko eta ikeritzeko gogoia, baina, bere idazlanek garbi erakusten duten bezala, aparte-ko arreta eskaini zion gure herriari. Sweet-ek dioten bezala, Humboldt «lirurapen bitxi bat zuen euskaldunekin». Interes berezi honen sakoneko arrazoa, berak hemen antzeman zuen Euskal Nazioan kokatu behar da.

2. Euskal Herrira egindako bidaien garaian Humboldt antropologia propio bat eraiki nahian ibil zen. Urte batzuk lehenago aurkitu zen historizismoa abiapuntutzat hartuz, gizaki konketuaren ezagutza eta formazioa lotu eta bultzatuko duen teoria bat osatzeko beharra ikusi zuen. Humboldt araberak antropologia batek, benetakoa eta zentzuzkoa izateko, ezinbestean kontsideratu behar du gizakia bere garapenean, alegia, hau izan dena eta orain dena aztertu behar du bai, baina izatera iritsi daitekeenaren argitan.

Helburu honekin landu zuen teoria antropologikotik bi ideia azpimarratuko ditugu orain. Batetik, Humboldt garbi dauka ezinezkoa dela gizakiari buruzko zientzia huts batera iristea. Aztergaia giza-indibidualitate konkretua da, eta hori denboran zehar aldatzen eta garatzen doanez, ezinezkoa da honen behin betiko ezagutza kontzeptual batera iristea. Gainera, ez dago jada planteamendu orokor eta unibertsalean aritzetik, eta halabeharrez antropologiak «espe-rientzian» oinarrituz landu beharko ditu bere erreferenteak, alegia, «giza-espezieraren manifestazio konketuak behatuz» eta elkarren artean «konparatuz». Humboldt antropologia, enpiria eta espekulazioa, historia eta filosofia, praktika eta teoria elkarlanean jarri nahi dituen egitasmo hermeneutiko bat da.

Bestetik, kontuan hartu beharrekoa da gizakia «sozialitatearen animalia bat» dela, eta honek osatzen duenez hain zuzen «bere karaktere bereizlea», gizadiak «bere gailur altuena sozialki bakarrik» jo ahal izango du. Giza-banakoa ez da izaki isolatu bat, baizik eta bere giza-taldeari erreferitutako izaki bat, eta horregatik esaten du

Humboldt gizakia beti bere komunitatearekiko erlazioan aztertu behar dela. Horrek argitzen du azken finean zergatik nazioak bere antropologiaren ikerketa-objektu garrantzitsu bat osatzen duen. Garai honetan Humboldt zera ulertzen du printzipioz nazio hitzarekin: jatorri eta hizkuntza komun bat duen eta historia eta mundu-ikuskerak bat konpartitzen duen giza-talde bat.

3. «Nire helburua», idazten dio

Humboldt Wolfi, «gizakiak eta nazioak ezagutzea da, eta horretarako zeharbide ugari urratu behar da askotan». Hauen artean garrantzitsuena bidaiatzea da, ze herri ezberdinetara joanez bakanrik izango da posible

giza-banako eta giza-talde ezberdinekin zuzenean kontaktatzea. «Kontua da gauza bakoitza bere lurrean behatzea, objektu bakoitza bera eusten eta aldi berean mugatzen duten beste objektuekiko erlazioan behatzea».

Beti ere Humboldt nahi duena zera da: gizakiak eta nazioak euren indibidualitatean ezaugarritzea edo singularitatean karakterizatzea. Horrek argitzen du azken finean zergatik eta zertarako etorri zen Euskal Herrira. 1799ko egonaldi laburrean euskaldunekiko eta euskararekiko jakin-mina areagotu eta gero, 1801ean itzuli zen berriz euskal probintzi guztiak bisitatzeke eta bertako hizkuntzari buruzko informazioa biltzeko helburuarekin. Humboldt nahi duena «euskaldunen karaktere nazionala» ezaugarritzea da, eta honi begira dagoelako saiatzen da bere bidaietan «inpresio bakoitza osoki hartzen eta gordetzen». Horrela ba,

ordena tematiko bati jarraitu gabe, denetarik idazten du bere egutegi, eskutitz eta kontakizuntan.

Hizkuntzaz aparte, honako hauek dira Humboldt interesak: euskal lurra bera eta euskal jendearen fisionomia, euskaldunen bizitzeko era eta izaera ezaugarritzen dituen herri-kultura, eta bereziki euskal probintziek historian zehar sortu duten berezko antolaketa sozio-politikoak. Aspektu guzti hauetan aurkitzen du Humboldt, eta honela adierazten du espreski bere idazkietan, euskaldu-

nen nazioa karakterizatzeko balio duten hainbat ezaugarri.

4. Zalantzaszko egoera honetan antzeman zuen Humboldt bere antropologia aurrerantzean hizkuntzaren ildotik landu eta garatu behar zuela. Borschek dioten bezala «euskal hizkuntza eta nazioarekiko bizipena» da hain zuzen bere ikerketa antropologikoei «orientazio berri baterako bultzada erabakiorra» eman ziona. Humboldt orduan konturatzen zen nazio

baten karakterizazioak ez zuela nahiko, ezaugarri ezberdinen pila-keta batekin, baizik eta ezinbestekoa zuela komuna den zerbaite-tara iristea eta ikerketa hemendik artikulatzea. Horrela egin zuen topo hizkuntzarekin. Hala baina, hizkuntza ez da askoren artean kontsideratu beharreko beste elementu bat, baizik eta gizakia bere existentzi nazionalan ezaugarritzen duen funtsezko osagaia.

Hizkuntza beti talde linguistikoen baten hizkuntza da, eta ondorioz Humboldt garbi ikusi zuen, hizkuntzarik gabeko gizakia pentsaezina den bezala, ezinezkoa dela ere nazioa bera imajinatzea dagokion hizkuntzarekin batera ez bada. Hizkuntza da nazio baten ezaugarri berezkoena, eta honengatik hain zuzen da posible berarentzat arraza ezberdineko pertsonak nazio bat eta bera osatzea, estatu batek bere baitan nazio ezberdinak biltzea edota nazio bat estatu ezberdinetan zabaldua egotea.

Humboldt azken finean nazioarekin ulertzen duena honela laburtzen du Menz: «Moldeatutako edota formatutako zerbait, kultur-komunitate izpiritual bat, zein proportzionalki markatutako karaktere bateratu propio batengatik eta bere kide guztietara iristen den hizkuntza kolektibo batengatik ezaugarrituta dagoen». Hizkuntzarenganako antropologiaren biraketa honetan lehen mailako garrantzia dute Humboldt euskal bidaiak eta ikerketek.

Berak bertan ia 30 urte beranduago aitortzen duen bezala, «haiei esker ohartu zen herri baten karakterearen, bere hizkuntzaren eta bere lurraren artean dagoen barruko loturaz».

5. «Bidai honetan», dio Humboldt 1801ekoari buruz, «nire atentzio-puntu nagusia hizkuntza zen», eta hori

horrela da euskara delako euskaldunak nazio bezala ezaugarritzeko ezinbestekoa den elementua. Euskara berarentzat euskaldunen «hizkuntza nazionala» da, eta hain da estua berez hizkuntzaren eta nazioaren arteko lotura, lehenengoaren galera bigarrenaren desagerpena izango litzatekeela. «Leinu baten identitatea ez da inoiz ziur frogatzen uzten bere hizkuntzaren identitate harantz», eta honengatik aitortzen du Humboldt inolako

zalantzarik gabe «euskaldun guztiek nazio bat osatzen dutela».

Nazioa ezaugarritzerakoan hizkuntzak duen esanahia eta garrantzia argi antzematen du berak espainiar eta frantziar Euskal Herriaren arteko barne-muga

dela eta. «Bizkaitarra» eta «zuberotarra» espreski aztertzen dituelarik, Humboldt ikusten du «hizkuntza bat hitz egiten dutela» eta «nazio baten eta beraren anaiak bezala aitortzen direla». Horrekin berak euskaldunen estatuz gaindiko batasun nazional bat egiaztatzen du.

Guzti hau kontuan hartuz ulertzekoa da zergatik Humboldt hasieratik adierazten duen «Euskal Monografia» bat burutzeko aukera eta asmoa. Euskaldunek «osotasun batu eta ezberdin bat osatzen dute», eta euren «nazioaren eta hizkuntzaren singularitateagatik» balio handikoak izan daitezke konparazioan oinarritu nahi duen bere antropologiarentzat. Monografia hori

hasieran proiektatutako forman bukatu ez bazuen ere, horretarako pentsatutako atal guztiak landu eta ikeritu zituen bere bizitzan, eta horren adierazle dira euskal nazioari eta hizkuntzari buruzko bere idazlan ugariak.

6. Orain dela bi mende etorri zen

Humboldt gure herrira, baina ez euskaldunoi laguntzeko edo salbatzeko desioarekin, baizik eta bere teoria antropologikoa aberasteko eta lantzeko.

Hau da berak utzi digun ondarea, eta, bere idatzitako guztiak oinarritzat hartuz, euskaldunoi dagokigu orain berarengandik ikastea. Lehenik eta behin, gauza bat garbi dago: Prusiatik etorritako eta bertako liberalismoaren aitzindarietako bat den Humboldt, inolako konplexu edo zalantzarik gabe hitz egiten du Euskal Nazio batez.

NAZIOA

Jatorri eta hizkuntza komuna duen eta historia eta mundu-ikuskerak konpartitzen duen giza-taldea zen hori

ASMOA

Ez zen gure herrira etorri euskaldunoi laguntzeko, baizik eta bere teoria antropologikoa aberasteko eta lantzeko

HUMBOLDTEN BISITAK

Lirurapen bitxi bat zuen eta sakoneko arrazoa berak hemen antzeman zuen Euskal Nazioan kokatu behar da

INTERES GAIAK

Hizkuntza ez ezik, euskal lurra, jendearen fisionomia eta euskal probintziek sortu antolaketa sozio-politikoak duen aztergai